



2008KO ABENDUAREN 18KO
EZ-OHIKO OSOKO BILKURA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta zortziko abenduaren hamezortzian, iluntzeko zazpietan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Patxi Albi-su Estensoro Alkatearen lehendakaritzapean, ez-ohiko batzaraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Xanet Barreras Jauregi, Xabier Arrasate Aierbe, Inazio Estensoro Eskisabel, Inazio Barandiaran Aldasoro, Juan Manuel Serna Portugal, Ángel Hernández Marzal, Ricardo Crespo Rubio, Iñaki Saldaña Herrero eta Javier Moreno González de Lara.

Felix Urkola Iriarte eta M^a Lourdes Garmendia Guerra zinegotziak ez dira bertaratu.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

Alkateak bilkurari eman eta eguneko gai zerrendako gaiak eztabaidatzeari ekiten zaio.

I.- EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA GARATZEKO PLAN ESTRATEGIKOA ETA LAZKAOKO UDALAREN EUSKARAREN ERABAILERA PLANA.-

Udal zerbitzu teknikoek landu eta euskara udal batzorde informatiboan informatua izan ondoren, udal osoko bilkurara aurkezten dira bere onarpenerako "Euskara biziberritze plan nagusia garatzeko plan estrategikoa" eta "Lazkaoko Udalaren euskararen erabilera plana" dokumentuak.

Serna zinegotziak (PSE-EE) plan estrategikoari eta erabilera planari buruzko hainbat argibide eskatzen ditu eta alkateak eta Euskara Udal Batzordeko presidentea den Xabier Arrasate zinegotziak eskatutako argibideak ematen dizkiote.

Serna zinegotziak esaten du beraiek bilinguismoaren aldeko apustua egin dutela beti baina ikusten dutela, udal honek, kultur jardueretan behintzat eta hizkuntzen erabilerari dagokionean, ez diela tratu bera ematen jarduera euskaraz edo gazteleraz izan, eta alde horretatik ezin diotela aldeko boturik eman onarpenera aurkezten diren dokumentu hauei baina bestalde ez dutela ezezkorik eman nahi euskara sustatzeko plan bati zeren euskara sustatu beharreko zerbait dela ikusten dutelako, eta ondorioz abstenitu egingo direla esaten du.

Guzti honen ondoren, gaia bozketan jartzen da eta Osoko Bilkurak, aldeko 8 botu (EAJ, EB-B, PP), aurkako boturik gabe eta 3 abstentzioz (PSE-EE), "Euskara biziberritze plan nagusia garatzeko plan estrategikoa" eta "Lazkaoko Udalaren euskararen erabilera plana" dokumentuak, beren espedienteetan aurkitzen direnak, onartzea erabakitzen du.



II.- 9 H.J.A.KO 9.1 E.U.KO HIRIGINTZA HITZARMENAREN OINARRIAK ONARTZEA ETA HITZARMENA IZENPETZEKO ALKATEA AHALMENTZEA.-

Jarraian Lazkaoko Planeamenduko Arau Subsidiarioetako 9 J.H.A.ko 9.1. E.U.ko jabeekin izenpetu nahi den hirigintza hitzarmenaren azalpena egiten du alkateak.

Hitzarmen honen oinarri edo zehaztapenak honako hauek lirateke:

"LAZKAOKO ARAU SUBSIDIARIOETAKO 9.1 E.U.KO (ARAKAMA-ARANBURU SENDIA) LURZORUAREN JABEEN GEHIENGOAREN ETA LAZKAOKO UDALAREN ARTEAN FORMALIZATUKO DEN HITZARMENEAN JASOKO DIREN ZEHAZTAPENAK.-

1.- Lurzoruaren jabe bezala Lazkaoko Udalak gunean dituen eskubideak, eta bere gainean dagoen eraikinaren balioagatik dagokion kalte-ordainak, hala nola, hirigintz jarduketak sortutako plusbalietan Herri Administrazioari dagokion partaidetza, bere baliokide ekonomikoarekin ordezkatzuko dira, 62.727 €-tan ezartzen dena, ordainketa hurrengo puntuan zehazten den 60,00m²-ko eraikitako azaleradun merkataritza erabilerako lokala emanaz egingo bada ere.

2.- Lurzoruaren gehiengoaren jabeek (Arakama-Aranburu sendia) Lazkaoko Udalari 60m²-ko eraikitako azalera duen merkataritza erabilerako lokala salduko diote, sustatuko den etxebizitza-eraikin berriko beheko solairuan egokituko dena, erantsitako planoaren arabera. Aipatu lokalaren prezioa 62.727 €-koa izango da (aurreko 1. atalean ezarritakoaren berdina).

3.- Gunean kokatzen den eta etorkizunean eraikiko den zubiarekin bategingo duen pasabidearen azpian sortuko den espazioak herri izaera izango du. Arakama-Aranburu sendiak une honetatik bere erabilera baimentzen dio Lazkaoko Udalari, eta zesio formala Birpartzelazio Proiektuan gauzatuko da. Hau behin-betikoz onartu bitartean ezingo da puntu honetan aurreikusitako erabilera gauzatu, obrak amaituta egon arren.

4.- Lurzoruaren gehiengoaren jabeak (Arakama-Aranburu sendia) Unitateko partzela eraikigarriaren jabe bakar bihurtuta, urbanizazio gastu guztien kargu egingo dira, Haurreskolaren sarbideko arrapala eta zubira arteko pasabidea barne. Lazkaoko Udalak beregain hartuko du pasabidearen azpiko espazioaren egokitzapena, zimentazioak eta pasabidearen egitura eusteko zutabeak barne.

Une hauetan Haurreskolako obrak burutzen ari direnez, eta pasabidearen egitura fase honetan eraikitzearen egokitasun tekniko eta ekonomikoa kontutan hartuz, lan hauek berehala burutuko dira, eta lehenengoz Lazkaoko Udalak esleitu eta ordainduko ditu, Arakama sendiak Udalari ordaintzeko konpromezua hartzen badu ere, unitatean aurreikusitako etxebizitza eraikin berriaren obra baimena ematen denetik aurrerako 15 eguneko epean, eta beti ere 2009ko abenduaren 31a baino lehen.

Balorazioa, hasita dauden Haurreskolako obrak burutzeko Lazkaoko Udalak onartutako eskeintzako prezio unitarioekin egingo da, honen xehetasunak hitzarmenari erantsiko zaizkio eta egiazko balioa izateko, Arakama-Aranburu sendiak izendatutako teknikariaren oniritzia izan beharko dute.

5.- Lazkaoko Udalak, egoki iruditutakoan, bere kargura burutuko du San Miguel elizako plazara iristeko zubia bere osotasunean, berau eusteko euskarriak barne.



6.- Hitzarmenaren formalizazioarekin, Arakama-Aranburu sendiak ordaindutzat jotzen du bere burua, eta lehen aipatutako lursailen okupazio eta zesioengatik legokiokeen balio justuari uko egiten dio.

Lazkaoko Udalak hitzarmen honetatik kanpoko edozein errebindikazio-ekintzari uko egiten dio.

7.- Arakama-Aranburu sendiak, 2009ko lehen sei hilekoan, Udal Administrazioaren aurrean Burutze Unitatearen garapen eta ejekuziorako hirigintz araudiak ezartzen dituen dokumentu guztiak aurkezteko konpromezua hartzen du.

Lazkaoko Udalak dokumentu horiek presazko izaeraz izapidatzeko konpromezua hartzen du. "

Aipatu zehaztapenak izango dituen hirigintza hitzarmen hau hirigintza batzordean informatua izan da.

Guzti hau honela, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko bo-tuarekin, honako akordioak hartzen ditu:

Lehena.- Akordio honen aurrekinetan xehatutako Arau Subsidiarioetako 9 J.H.A.ko 9.1. E.U.ko jabeekin izenpetzekoa den hirigintza hitzarmenaren zehaztapenak onartzea.

Bigarrena.- Hirigintza hitzarmen hori izenpetzeko hala nola hitzarmen horren edukia gau-zatzeko beharrezko izan litezkeen gainontzeko dokumentuak izenpetzeko alkatea ahal-mentzea, osoko bilkuraren akordio berri baten beharrik gabe.

III. ESTATUAREN TOKI INBERTSIOKO FONDORAKO INBERTSIO PROIEKTUAREN AUR-KEZPENA ONARTZEA.-

Azaroaren 28ko 9/2008 Errege Dekretu-legearen bitartez ekonomia eta enpleguaren dinamizaziorako Toki Inbertsiorako Estatuaren Fondo bat sortu da. Fondo honek, Lazkaoko Udalak BEZ eta guzti gehienez ere 793.853,44 €ko zenbatekoa izango lukeen in-bertsioa egitea ahalbidetzen du.

Hau honela, gaia aztertu ondoren, eta Hirigintza eta Obretako Batzordean informa-tua izan ondoren, gaur egungo kiroldegiaaren alboan estali gabeko igerilekuak egiteko proiektua Toki Inbertsiorako Estatuaren Fondo honetara aurkeztea proposatzen da.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botue-kin, zera erabakitzen du:

1.- Azaroaren 28ko 9/2008 Errege Dekretu-legearen bitartez ekonomia eta enpleguaren dinamizaziorako Toki Inbertsiorako Estatuaren Fondoaren kargura "Estali gabeko igerile-kuak" inbertsioa aurkeztea.

2.- Alkatea ahalmentzea aurreko akordioa bideratzeko egin beharreko guztiak egin ditzan.



IV.- SAN BENITO IKASTOLA ERAIKINAREN DESAFEKZIO ESPEDIENTEA HASTEA.-

Gaur egun Euskadi Enparantza, 5ean kokatzen den eraikina -San Benito Ikastola- irakaskuntza publikoko erabilerarako ez dela erabiltzen ikusita, Euskara, Kultura eta Hezkuntza Batzordeak Udal Osoko Bilkurari bere desafektazioa erabaki dezala proposatzen dio.

Serna zinegotziak (PSE-EE) esaten du erabaki honekin Lazkaon egunen batean herri ikastetxe bat izateari ateak gehiago ixten zaizkiola eta hau honela izanik beraiek aurka bozkatuko dutela.

Gaia eztabaidatu ondoren, Osoko Bilkurak, aldeko 6 botu (EAJ), aurkako 3 botu (PSE-EE) eta 2 abstentzioz (EB-B, PP), honako akordio hauek hartzen ditu:

1.- San Benito Ikastola eraikina desafekztatzeko espedientea hatea, Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailari desafekzio hau onar dezan eskatuz eta ondoren espedientea 30 egune-tan jendaurrean jartzea.

2.- Jendaurreko denboraldian inolako erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, hasierako onarpena behin betikoa bihurtuko litzateke espreski hartutako akordio berri baten beharrik gabe.

V.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du, iluntzeko zortziak laurden gutxi direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dudalarik.

